

8

ZRV  
3232

**JESUS-EN**  
**BIOTZ-SAGRADUCO**  
 BILLERA SANTUEDO CONGREGA-  
 CIOAREN GAÑECO CAUZA CERBAITZUEC  
 DACAIZQUIEN LIBURUCHUA



**I.M.I.**

**TOLOSAN:**  
 Eusebio Lopez-en noldizteguian,  
 1878.





M- 72279

AN

F- 74237

31593

# JESUS-EN


## BIOTZ-SAGRADUCO

Billera santu edo Congregacioa  
ren gañeco gauza cerbaitzuet.

DACAIZQUIEN LIBURUCHOA.



*Es propiedad.*




TOLOSAN,

Eusebio Lopez-en moldizteguian

1878.





## LENENGO PARTEA.

Jesus-en Biotzari jayera ta es-  
caera batzue c.

*Sartu-aurreco jaquimbide edo  
Oarquerac.*

1.<sup>a</sup> Erromaco *Sancta Maria ad Pineam* deritzan Elizan, mundu fedeosedun gucico cristau leyalentzaco, leguez eta bidez ipiña arkitzen da Billerasantu au; tabere eguitetecoa icenac ere dionez, (eta arguiago oraindic emen guero ezarricodan beraganatzeco oracio edo otoizetic iguerri leiqueanez,) da, Jesu Cristo gugatic gurutzean illaren, eta bere Biotz iracequi, aldareco Sacramentu guciz Santuan gugatic amorez entua-dagoanaren gloria gueyago ta gueyago aurreracitzea, ta gueitzea; eta amoreco misterio edo ezcutamen onetan eguiten zaizcan ez-bearrac ta charqueriac onez ordaintzea.

2.<sup>a</sup> Billera santu onetan inscribituac daudenai ezarritzen zayeten eguimbearrada, egunero *Aita-gurea*, *Ave Maria*, eta

*Credo bat*, Jesus-en Biotz Done edo ;  
duari jayeraz errezatzea , esanaz gañera  
biotzez otoitzaldicho edo oraciocho labur  
au:

¡Nere Salvatzallearen  
Chit Biotz maitea!  
Gartu ta gueifu idazu  
Beti zu amatzea....

3.<sup>a</sup> Eguiten du Billera Santu onec, ar-  
taraco siñalatua daucan Elizan, ill bacoit-  
zaren lenengo jaiegunetan diaquinde edo  
funtziocho bat, señac Jauna-patenterequin  
ta sermoi ta guci, ordu-bete guchi gora-  
bera iraun oi du. Eta ill bacoitzaren lenen-  
go domeca edo jayean confesatu ta comul-  
gatzea, Aita Santuaren gogoraco erregu-  
tuaz, bere Congregante edo Billeracoai en-  
cargatzen diye; orrela eguiñarequin irichia  
daucaten indulgenci edo barcamendu-osea  
irabaci dezaten; eta ala eguiaz, beren ar-  
tean oitura eder au gordetzen dute.

4.<sup>a</sup> Baditu gañera Billera onec beste  
eguibide santu asco, nola diran Billeraco  
edo Congregante ciranentzaco Mezac ate-  
ratzea; urtean bein Meza-nausi bat esan-  
acitzea , aurrez edo ondorean Jesus-en



Biotz-Sagraduari hederatziurrena eguiten zayola etc.

5.<sup>a</sup> Jaquiñ bear da ere cearo ta garbi, Billera Santu onetaco betebearrac eta eguinquizunac ez dutela inolaco moduz berenez obligatzen edo beartzen pecatu ez larri ta ez venialcho baten ere azpian; eta ala, bertan izcribatua dagoanac, ez dio bere concienciari calteric eta acatz pitiñ bat ere eguiten, gauza bat edo beste utzi arren; eta oandic gueiyago dana, berenez ezta guztiya oso utzita ere.

6.<sup>a</sup> Jesus-en Biotz Sagraduaren Bille-ra-coac irabaci al-ditzaqueten indulgenci edo barcamen osoac bi moducoac dira, batzuec irabazteco, bearra da Congregacioco Eleiza visitatzea; besteac irabazteco naicoa da ezarritzen dan obra-ona eguitea ta com-pesatu, comulgatu eta Aita Santuaren gogoraco erregutzea.

Irabazten dira aurrenengoac, ceñac baidiran Purgatorioco animei ezarricorrac, onaco egun oetan:

1.º Ostegun Santuz:

2.º Pistuera edo Erresurrecioco Pascua igandean:



3.º Ascensio jaiyan edo Jesucristo to G. F. en beruratze-egunean:

4.º Eguarri egunean:

5.º Ama Virgiñaren pesta-egun Sor-tze-guciz Garbico, Jasoera edo Asuncio-coetan, Eliza sartze edo Purificacioco, eta Berrion edo aunciacio Santu Guztien Jayan, eta Anima Bedeincatuen Oroipen egunean, San Jose-ren, San Pedro ta San Paulo Apostoluen, eta San Juan Bautista Evange-lari-aren egunetan: jaquiñaren gañean or-dea, esan dan Eliza-vicitatzea eciñ bada eguiñ gaisotasun, miñatz, edo beste era-gozmen arrazoizcoaren bategatic, Compe-soreac señalatzen dion obra onembat egui-tea naicoa ta orobat dala indulgenci oriec irabazteco.

Irabazten dira bigarren barcamen edo indulgenci osoac egun oyetan:

1.º Billeran sartuera eguiten dan egunean:

2.º Jesus-en Biotz Sagraduaren pes-ta egunean:

3.º Ill bacoitzaren lenengo ostiral edo igandean:



3.º Ill bacoitzaren egun bat edoce-  
ñean:

5.º Irabazten dute ere barcamendu osoa eriotzaco zorian, benetan damuturic, Jesus-en Icen gosoa esaten edo deitzen dutenac, dala mingañez, dala ori eciñean, biotzes edo gogoz.

✦ Entero asco dira Billerazaleai aguinduric dauden barcamen partezcoac, eta era ascotara irabaci leizqueanac. Oectatic bata da irureun eguneco barcamendua; ceña irabazten da errezatuaz iru *Gloria etc.* goicean eguardian eta illuntzean, Irutasun edo Trinitade guciz Santuari, Ama Virgiñari bere Ceruetaraco Jasoera gloriazgoan eguiñ cizcan doay ta gracia-gatic esquerrac emateco.

Gañera irabazten da barcamendu osoa anima bedeincatuei ezarrigarria, Jesus-en Biotz Doatsuaren pesta eguitean Eliza, Capilla edo Erreguteguirembaten pestaegunean bertan, eta orobat sei ostiral-ero Domeca aurrecoetan, toqui santu hura visitaturic ta compesatu comulgatu eta Aita Santuaren asmoraco erreguturic.



*Billera-santu onetan sartzeco  
Escaera.*

Ni, ; Jesucristo  
Jaun, gugatic gurutzean ill zanaren, eta  
bere Biotz iracequi, Aldareco Sacramentu  
guciz-Santuan amorioz gugatic suturic da-  
goanaren gloriya ta ondra edo omena, gue-  
yago ta gueyago aurreracitzeco; eta amo-  
riozco ezcutamén onetan eguiten zaizcan  
bidegabequeriac ordainitzeco ta desirain-  
tzeco; bat-eguiten naiz Billera-Jaincozco  
onetan alcaturic dauden guciaquin, parte  
artu nairic ere berari emanac diran barca-  
men santuetan, etagoza-nairic bertan eguiñ  
oi dan on-ezpirituzco guzti guztiaz nere  
becatuen ordañean, eta Purgatorioco ani-  
men sufragioraco. Arritzatzu, Jesus nereá,  
cere Biotz donean Jaincozco Batzarre one-  
tan batutaco danac, zure maitetasun Jaun-  
goicozcoan iracequiac-izan ditecen, eta  
cere aguindu santuac ta beren vicimoduco  
betebearrac oso-oso gorde ditzaten. Amen.



*Goizeroco escaera.*

¡O Jesus-en Biotz guztiz maitagarria!  
Cereganatzen dizut egun onetan nere biotzaren erdi-erditic sortutzen zaidan lehen-go arnasa au: erreguturic ciñez eta menaz, diña zaiteala, arren, zucentzeaz gaur nere gorputz eta animaco eguite guciac; ceñac obetu eta garbitu ditzala cere Biotz oso gozatsuac, cereaquin bateguiñ ta escañiric secula gucico alabanzan cere Aita Beticoa-ri. Ala izan dedilla.

*Lotara aurreco otoitza, edo Oracioa.*

¡O Jesus-en Biotz guztiz gozoa! Ematen dizquitzut humillquiro cere contura gau onetan nere biotz ta gorputza, ceregan gozatsu atsedan dezaten. Baña, nola nere lo-bitarte onetan ezingo zaitudan alabatu, alaco moduz cerorrec ordeztu nazazu, non, cembat aldiz nere biotzac dardaratzen duen ambat bider Irutasun guciz Santuari nigatic alabanzac esqueiñi diozcatzun, eta cembat asnasa artzen ditudan, ambat esquer onezco emanaldi ta amore iracequizco sen-



tiera beraganaco izan ditecen. Ala guerta dedilla.

*Lenengo lambidea edo Eguitecoa.*

### Eraguillea.

*Eraguilleac*, bateguiten dala gogoz ta biotzez Tronnac edo Jargoiyac deritzen Aingueru taldearen alabanzaldiaquin, sayatu bear du Jesus-en et Maria-ren Biotz Sagraduenganaco jaiera edo devocioa or-emen zabaltzen ta egozten bere ejemplo ta izqueta onaquin, escaturic ere Jaungoicoari bere erregualdietan barreatu dedilla jayera ain eder ta santu au

Bere *vertutea* bada izango da itz-onaquin eta batez-ere obra onaquin lagunai ejemplo ta ispillu becela izatea.

*Jaiegunean* eguingo dio Jesus Sacramentuari ta Ama Virginiari visita edo icustaldi bat iru *Aita gure* ta *iru Salve* errezatuaz; eta orobat egunero errez albadu, ta bere beargayac uzten badiye.

*Egunero* jaiquitzean, oiratzean eta noizeambein egun bitartean esango die....

*Jesus-i.*

---

¡Nere Salvatzallearen  
Chit Biotz maitea!  
Sutu ta gueitu idazu  
Beti zu amatzea....,

---

*Eta Ama Virgiña-ri.*

---

Virgiña Ama; arren gorde  
Nazazu gaitzetic.....  
Pecatu galgarri ta  
Lagun gaiztoetic.

---

BIGARREN EGUITECOA.

**Zucentzallea.**

*Zucentzalleac*, bateguiñic gogoz ta biotzez ceruco Aingueru talde Almentsuen



edo Potestade-en icena dauqueten erregu ta alabanzaquin, escatuco dio Jaungoicoari guizonangandi Sacramentu chit Santuan artzen dituen ezbear, charqueri ta beguiracenen barcacioa ta batez ere Comunio Charrena.

*Bere vertutea*, izango da, caridadearen, isiltasunaren, ta cintzotasunaren contraco utseguiteric chiquienic ere ez egaitaco, contuz ta arretaz ibiltzea.

*Astelenean*, eta egunero ere albadu, Sacramentu guciz-Santuari ta Ama Virginiari visitaldi bat beintzat eguingo die, fedezco, ichedomenezco eta caridadezco eguintzac esanaz eta Virginiaren letaniac errezatuaz.

*Egunero*, jaiquitzean, oiracoan eta noizean-bein eguim-bitartean esango die....

### *Jesus-i.*

¡Nere Salvatzallearen  
Chit Biotz maitea!  
Gartu ta gueitu idazu  
Beti zu amatzea.

*Eta Ama Virgiña-ri.*

Virgiñ Ama arren gorde  
Nazazu gaitzetic,  
Pecatu galgarri ta  
Lagun gaiztoetic.

IRUGARREN EGUITECOA.

**Adoratzallea.**

*Adoratzalleac*, parte arturic biotzez Aingueru Jabe edo Dominacioen alabanzetan, batez ere irutasun guciz-Santuari Jesus eta Maria-ren Biotzac beti ematen ai diranetan, egongo da Eliza, Capilla eta beste lecu sagraduetan arquitzean, arreta ta beguiru-meric aundienarequin, nun nai Jaincoaren aurrean gaudela oroituric.

*Bere bertutea*, izango da modutsua ta egoquia ta batezere lecu santuetan beguirunetsua izatea.

*Asteartean*, visitaldicho bat edo beste Sacramentu chit Santuari ta Ama Virgiña-ri



eguingo die, escatzen diola Andre Maria Virgiña sortzez oso-Garbiari bere seme Jaincozcoa biotz prestu ta garbiz beti maitatu ta bearbecela adoratzeco gracia ta laguntza; errezaturic bien Biotz chit Santuei *iru Aita gure ta iru Ave Maria.*

*Egunero.* jaiquitzean, lotaracoan ta beste aldiren batzuetan ezango die:

*Jesus-i.*

---

¡Nere Salvatzallearen  
Chit Biotz maitea!  
Sutu ta gueitu idazu  
Beti zu amatzea.

---

*Eta Ama Virgiña-ri*

---

Virgiña ama arren gorde  
Nazazu gaitzetic,  
Pecatu galgarri ta  
Lagun gaiztoetatic.

## LAUGARREN EGUITECOA.

### Maitazalea.

*Maite edo Amanteac*, Aingueru-Serapiñ edo sutuequin bateguiten dala, sayatuce da alduenez ordaintzen bere amodiozco eguiteaquin, eta maitetasunarequin, guizonen epeltasun eta atzeratasuna Jesus-en Biotzac dien amore neurrigabeaganonz, ta batezere Jaincoari consagratutaco personena; erre-guturic sutu ditzala Biotz guciac, eta are gueyago Congregacio edo Bifleraco lagunenac bere amorean.

*Bere bertutea*, izango da lagun urcoacganaco amore sendo irauncorra, ondo beguiratuaz guciei; barcatuaz biotzez gaitzeguiñ edo sentieracidigutenai; adizquidezera sayatuaz etsay edo gorroso diranac, on-eguiñez alduenez beartsu, gaisso edo premian dagoanari etc.

*Asteazquenean*, visitaldi bat edo beste Sacramentu chit Santuari ta Ama Virgiñari eguingo die, erreguturic pistu dezatela mundu gucian Jaincoaren amo-re sugarra

*Egunero*, jaiquizean, oiratzean eta noicean beiñ egun bitartean esango die....



*Jesus-i.*

¡Nere Salvatzallearen  
Chit Biotz maitea!  
Gartu ta gueitu idazu  
Beti zu amatzea

*Eta Ama Virgiña-ri.*

Virgiña Ama, arren gorde  
Nazazu gaitzetic,  
Pecatu galgarri ta  
Lagun gaiztoetatic.

BOST-GARREN EGUITECOA.

**Icaslea.**

*Icaslea*, Aingueru jaquintsu edo Queru-  
biñ-equin batean, escatuco dio Jainco Jau-  
nari guizon guciei isuri deguiela bere-  
beretzat Jesus ta Mariagandic esanac bece-

la, artuco ditu ta gomuntatuco ditu Salvazallearen itz oec; "Discite á me, quia mitis sum et humilis Corde" Icasí ezazue nigan-dic, ceren mansoa naizan, eta humilla Biotzez."

*Bere bertutea*, izango da Jaincoaren itz-issill ta adierai ondo erantzutea, arrokerico grña menderatzea, eta besterekin eguiaz humilla, ochana, ta biguña izatea tratuan dá itzetan.

*Ostegunetan*, Sacramentu chit Santuari ta Ama Virgñari visitaldi bat edo beste eguingo die, biotzezco mansotasun eta humiltasuna escaturic beretzat, eta errezaturic *Credoa* ta *Salvea*, azquenean contriciozco edo damonezco actoa eguingo du.

*Egunero*, jaiquitzean, oiratzean eta noicean beiñ egun bitartean esango die....

*Jesus-i.*

Nere Salvatzallearen etc.

*Eta Ama Virgñari.*

Virgñ....etc.



## SEIGARREN EGUITECOA.

### Jauscañiya.

*Jauscañi dana.* Vertuteac deritzan Ainguerutaldearequiñ alcarturic biotzez, eta batez ere amoriozco Jauscañi Jesucristo gure Jaunarequiñ bat eguiñic, esqueñico da Aita Beticuari, ordaintzeco alduenez. Sacramentuan ta lecu santuetan guizon gucien batez ere berari Consagratuen-gandic artzen dituen charqueri ta esquergabetasunac.

*Bere vertuteac,* izan bedi, griña gaistoac ilduratzen ta escuratzen aurreratzea, bere genio ta andiusteari gogor•eguiñic, janean edo edanean neurritz ibilliric, gustoco ganzaen bat besteri utziric, beguiari contuarturic etc.

*Ostiraletan,* Jesus-ta Maria-ren Biotz Sagraduei bisitaldiren- bat edo beste eguingo die, desiscainduric Jainco Sacramentatu eta erreguturic becatariac ondu ta salva ditacen: errezaturic atcenean bost *Aita-gure,* bost *Ave Maria* eta bost *Gloria.*

*Egunero,* jaiquitzean, oiratzean eta noizean bein egun bitartean esango die....

*Jesus-i.*

---

Nere Salvatzallearen etc.

---

*Eta Ama Virgiña-ri.*

---

Virgiñ.....etc

## ZAZPI-GARREN EGUITECOA.

### **Servitzaria.**

*Servitzaria*, Lenenaingueru edo goi-ain-gueruequin bateguiñic, emango zayo oso ta biotzez Jesu Cristo G. Jaunari, bere Jaincozco amore cateaquin lotua egon de-diñ, bera gure onguinai ta maitetasunez Aldareetan aiñ guganatua dagoan ezquero; escaturic bereganatu ditzala biotz guci-guciac.

*Bere vertutea*, izango da Jaungoicoaren vorondatearequin berea bat-eguitea; obedituric bear becela Jaincoac eratu dizquion



nagusi, aguintari, maisu ta buru dituenari. *Larumbat*, edo *Zapatuetan*, alvista edo visitaldia eguingo die Jesus-ta Maria-ren Biotz doatsuai Eliza edo lecu *Santurembaten*; escaturic berenganatu ta lotu ditzatela guizonen biotzac Jaincozco amore-cateaquin, aingueruequin Ceruco libretasun beticora irichi arte; errezaturic atcenie *Sei Aita-gurre*, *sei Ave-Mari*. ta *sei Gloria*.

*Egunero*, Jaiquitzean, oiratzean eta noicean bein egun bitartean esango die...

*Jesus-i.*

—  
Nere Salvatzallearen etc

—  
*Eta Ama Virgiña-ri.*

—  
Virgiñ....etc.

—  
ZORTZIGARREN EGUITECOA.

**Escalea edo Erregutzallea.**

—  
*Erreguzale* edo *Escaleac*, alcar arturic Ain-

gueruequin, escatuco dio Jaincoari issuri ditzala graci ta ondasun ugariac bere ta besteen, batez ere Billera Santuco lagun en biotzetara, gordeac izan ditecen corputzeco ta animaco perill guztietatic.

*Bere vertutea*, bildura ta modutasuna izango da beguiratzean, ibiltzean eta gorputzeco muguimentu danetan.

*Igande edo Domecan*, visitacho bat edo beste Sacramentu chit Santuari ta Ama Virgiñari eguingo die, iltzeco zorian arkitzen diranacgatic, eta Purgatorioco animacgatic erregutzen duela: eta errezatuco ditu *iru aldiz Aita gurea, Agur Maria, eta Gloria:*

*Egunero*, jaiquitzean, oiratzean eta noicean bein egun bitartean esango die...

*Jesus-i.*

—  
Nere Salvatzallearen etc.

—  
*Eta Ama Virgiña-ri.*

—  
Virgiñ....etc.



## BEDERATZI-GARREN EGUIMBIDEA.

### Celataria.

*Celataria*, bederatzi Ainguerutaldea, batez-ere Lenencoi edo Principaduac erreguz bereganaturic, sayatuco da ta aleguin eguingo du, Jesus ta Mariaren Biotz Sagraduequico jayera edo devocioa zabalzen ta besteai eracusten ta ezarrizten, lagun urcoen ere utzeguiteac era ta egoqui albadu, quenduric gauz oetan.

*Bere vertutea*, izango da inorc ere Jaincoa ofendi ez dezán arre'ta, zale, gogo, ta cresi vici-andi-bat.

*Jaiegunean edo astegunean ere*, egoqui balezaque, visitaldicho bat edo beste Jesus Sacramentuco ta Ama Virginiari eguitera joango da eresi ta edo andiaz; erreguturic gorde ditzala arren Jaingoico G. Jaunac bere adisquidetzan erruezac eta pistuac, eta oneratu ditzala becatari triste-errucarri gajoac. Onetaraco *bost Aita-gure*, ta *bost Ave Maria* errezatuco ditu.

*Egunero*, jaiquitzean, oiratzean eta noiceain bein egun bitartean esango die...

*Jesus-i.*

---

Nere Salvatzallearen etc.

---

*Eta Ama Virgiña-ri.*

---

Virgiñ....etc.

---

ELIZAN SARTZEAN, ETA ANDIC  
*irtetean esateco otoitz-labur edo  
escariehoa.*

---

Jesus ta Maria-ren  
Biotz doaisuac  
Eizguigutzue gureac  
Zuen antzecuae

---



## BIGARREN PARTEA.

*Jesusen Biotzari canta ta alabanzac.*

### LENENGO CANTAC.

*Estago Cerura  
Beste bideric  
Jesus-en Biotza  
Becelacoric.*

1	4
Cerueo gloria Gracia eguiñic Lurrera etortzen da Biotz artatic. <i>Eztago Cerura etc.</i>	Cerua ta lurrac Daude arrituric Biótz eguzki eder Argui orregatic. <i>Eztago etc.</i>
2	5
Aita Beticoa dago Beguira goitic, Bere ispillu eder au Icusteagatic. <i>Ezdago etc.</i>	Aingueruac daude Ceru guztitic, Biotz eder oni Ondo iritziric. <i>Ezdago etc.</i>

3

Jaungoicotasuna  
Dago or jarriric  
Biotz ori Jargoy  
Eder eguiñic.  
*Eztago etc.*

6

Jesus-en Biotza  
Beguirataric,  
Guretzat ez dauca  
Erruquia baicic.  
*Eztago etc.*

## JESUS-ENBIOTZ MAITAGARRIARI

---

### CANTARTEA.


---

*Gure gusto gure atseguin  
Gure Jesus maitea  
Cere Biotzeco suan  
Erre zazu gurea.*

1

Gure obenac gure loiac  
Lenic quendu bear dira;  
Ura zara; quen itzatzu;  
Galdu gara bestela,  
Badaquizugu zaudela  
Gure amorez betea.  
*Cere Biotzeco suan  
Erre zazu gurea.*





Etzeuden bacarric loiac  
Gure biotz gaistoan;  
Buzti ta ur eguiña dago  
Becatuen cutsuan,  
Garbia da, idor dago,  
Jesus ona, zurea.

*Cere Biotzeco suan*  
*Erre zazu gurea.*

Arguiz dago betirican  
Jesus zure Biotza,  
Illumbean gurea ta  
Elurra bezain otza;  
Emen gator aguer zazu  
Zu-ganaco bidea.

*Cere Biotzeco suan*  
*Erre zazu gurea.*

---

4

Noiz bait noiz bait arquite dut  
Bular ori idiquia!  
Sartuco naz arnazazu  
Biotzean gucia;  
¿Egon bear ez ote dut  
Nic or beti gordea?  
*Cere Biotzeco suan*  
*Erre zazu gurea.*

5

Zure suac zure garrac  
Aut-seguinēn naute ni?  
Gueroztic egoin ninzaque.  
Amorez urtzen beti,  
Jesus, zu zaran ezquero  
Gure animen labea,  
*Cere biotzeco suan*  
*Erre zazu gurea,*

---



## COMUNIO EMAN ONDOREN

*Cantatzeco itz neurtuac.*

—

*Zure, Corputz chit Santua  
Izan vedi gure lagun,  
Berequin aurqui dezagun  
Bildur gabe Cerua.*

1

Zure Corpuz chit Santua  
Indarra da macalentzat,  
Janaria sendoentzat  
Da becatarien ona.

2

Zure Corputz chit Santua  
Da gozo paregabea,  
Da osasuna ta paquea  
Da animaren vicitza.

3

Zure Corputz chit Santua

Da usay-eder Ceruzcoa  
Garaitzen duena nardoa  
Eta Taborco lorá.

4

Zure gorputz chit Santua  
Da biotzen vicilecu,  
Non arkitzen duten lecu  
Zu amatzeco ¡Oh Maitea!

5

Zure Corputz chit Santua  
Antuentzat dezu abiya,  
Nun duten vicigarriya  
Zure maitetasuna.

6

Zure Corputz chit Santua  
Jan dezagula eriotzean,  
Ill arte Zere amorean  
¡Oh Jesus maitatua!...

---



I.

ATZEN-AGURRA JESUS-EN  
*Biotz Sagraduan.*

*Coruac.*—¡Agur Jesus-en Biotza,  
Gure vicilecua!

*Erriyac.*—Becar, Jesus chit lastana,  
Bear bendiciyua.

*Coruac.* —¡Agur, Jesus-en Biotza,  
Gurutzez zamatua!

*Erriyac.*—Bear, Jesus chit laztana,  
Becar bendiciyua.

*Coruac.* —¡Agur, Jesus-en Biotza,  
Gugatic zauritua!

*Erriyac.*—Becar Jesus chit laztana,  
Becar bendiciyua.

*Coruac.*—¡Agur, Jesus-en Biotza,  
Gureaz Jabetua!

*Erriyac.*—Agur, Jesus chit laztana,  
Becar bendiciya....

A. M. B. G.





9841  
31







